

SHARP-SKINS

SHARP EEBBetan jaio zen 1988an organizazio antiarrazista bezela. Europan zehar zabaltzen hasiko da Rody Morenoren eskutik (Oi! & SKA Recordsen sortzailea). Beronek zenbait kontaktu izango zituen mundu zeharko beste organizazio batzuekin. Organizazio honen helburuak erabat argiak izango dira.

Lehen helburu bezela Skinhead bat zer den jendeari jakinaraztea izango litzateke. Hauek 60. hamarkadaren erdialdean sortuak izango dira Ingalaterran eta bere zabalkundea izango duelarik 1969ean (Spirit of 69). Gazteak, MULTIRAZIALAK (arrazia txurikoak, beltzekoak, magrebiak etabar) bizitza forma batengatik bateratuak, musika batengatik eta estetika batengatik gazte langile klasetik (Mods) eta jamaikako emigrante gazteengatik (Rude boys) sortuak; eta erritmo musikal beltzen eraginpean (R&B, Soul, Ska, Rock-Steady eta batez ere Reggaea, garai haietan Skinhead Reggae bezela ezagutua).

Beste helburu batzuk izango dira, BONEHEAD (buru hutsa) hitza erabiltzen hastea inpresentable horiek deitzeko (naziak, ultra, etabar). Arrazakeria guztiarekin bukatu dato-rra dato-rra, eta SHARP mugimendua desagertzea jarritako helburu guztiak beteak geratuaz.

Beste puntu garrantzitsu bat ere komunikazio bide sensazionalistek egiten dutena izan-go litzateke, gauza arraroak bilatzen dituztenak Ingalaterra, Alemania, Frantzia, Italia, EEBB, Espainia etabarrekoak bezela. Baina gertakizun hauetan bakarrik geratzen dira eta ez dute kontaktzen nolako erreakzioa sortzen duen egiazko Skinheadetan eta Skinhead mugimenduarekin identifikatuak gaudenak zeren beraiek Skinhead deitzen dutena ez da egiazko Skinheada izango baizik gertaera hauek egiten dituztenak Bonehead batzuk izango dira eta horrela nahi dugu deitzea.



SHARP